Pribatuen Iragarkiak

AYALA KANTZELARIA-GREGORIO MARAÑON BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

IRAGARKIA, elektrizitate-adarreko teknikari laguntzaile titulua (instalatzaile mantentzaile - II modulua) galtzeari buruzkoa. 7000

MATRICI PLÁSTICOS KOOPERATIBA

IRAGARKIA, Matrici Plásticos Kooperatiba desegiteari eta kitatzeari buruzkoa. 7000

Anuncios Particulares

INSTITUTO DE ENSEÑANZA SECUNDARIA CANCILLER AYALA-GREGORIO MARAÑON

ANUNCIO relativo al extravío del Título de Técnico Auxiliar Instalador Mantenedor Eléctrico (Módulo II). 7000

MATRICI PLÁSTICOS, SOCIEDAD COOPERATIVA

ANUNCIO de disolución y liquidación de Matrici Plásticos, S. Coop. 7000

Xedapen Orokorrak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Zk-1830

48/2004 DEKRETUA, martxoaren 16koa, ibilgailu automobilen segurtasunaren arloan ibilgailuen azterketa teknikorako zerbitzua duten entitate emakidadunei izenda dakizkiekeen aztertze-, izapidetze- eta kudeatze-eginkizunak zehazten dituen dekretua aldatzekoa.

Irailaren 1eko 294/1987 Dekretua aldatu eta osatzen duen ekainaren 30eko 178/1992 Dekretuaren 2. artikuluak dioenaren arabera, ibilgailuen azterketa teknikorako zerbitzua Estatuaren Kontratuetarako Legean eta gainerako garapen xedapenetan jasotako modalitateetakoren bat baliatua kudeatu ahalko da. Ibilgailuen Azterketa Teknikorako Aztertokientzako arau orokorrak ezarri eta aztertoki horien jarduna eta garatu beharreko ekintzak arautu zituen 294/1987 Dekretuak. Xedapen horiek betetze aldera, Industria eta Energia Saileko Zerbitzu Orokorretako zuzendariaren 1993ko azaroaren 19ko Ebazpenaren bidez, ibilgailuen azterketa teknikorako zerbitzuaren ustiaketa kudeatzea helburu zuen kontratua emakida erregimenean esleitu zen.

Aurretik zeuden xedapen batzuk indargabetu ondoren, ibilgailuen azterketa teknikorako zerbitzuaren emakidadunei, ibilgailu automobilen segurtasunaren arloan, izendatu ahal zaizkien aztertze-, izapidetze-, eta kudeatze-eginkizunak zehaztu zituen apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuak. (2000ko maiatzaren 3ko EHAA).

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

N°-1830

DECRETO 48/2004, de 16 de marzo, de modificación del Decreto por el que se determinan las funciones de inspección, tramitación y gestión, dentro del ámbito de la seguridad de los vehículos automóviles, que podrán ser asignadas a las entidades concesionarias del servicio de inspección técnica de vehículos.

El artículo 2 del Decreto 178/1992, de 30 de junio, por el que se modifica y complementa el Decreto 294/1987, de 1 de septiembre, por el que se establecen las normas generales de instalación de las Estaciones de Inspección Técnica de Vehículos I.T.V.–I.A.T. t se regula el funcionamiento y actividades a desarrollar por dichas Estaciones, dispone que la gestión del servicio de inspección técnica de vehículos podrá ser realizada utilizando alguna de las modalidades previstas en la Ley de Contratos del Estado y demás disposiciones de desarrollo. En aplicación de estas disposiciones, mediante Resolución de 19 de noviembre de 1993, del Director de Servicios Generales del Departamento de Industria y Energía, se adjudicó el contrato que tenía por objeto la gestión de la explotación del servicio de inspección técnica de vehículos en régimen de concesión.

Tras derogar algunas disposiciones anteriores, el Decreto 60/2000, de 4 de abril, determinaba las funciones de inspección, tramitación y gestión, dentro del ámbito de la seguridad de los vehículos automóviles, que podrán ser asignadas a las entidades concesionarias del servicio de inspección técnica de vehículos. (BOPV de 3 de mayo de 2000).

Dekretuaren atal zentrala den 2. artikuluak ibilgailuen azterketa teknikorako zerbitzuaren entitate emakidadunei izenda dakizkiekeen eginkizunak jasotzen ditu, hain zuzen ere, d) idatz-zatiak, ibilgailuetan egiten diren erreforma garrantzitsuen ingurukoak zerrendatzen ditu. Idatz-zati horretan, emakidadunek ezagutu behar zituzten erreformak zerrendatzen ziren, eta horietako asko administrazioaren esku gelditzen ziren.

Abenduaren 5eko CTE/36191/2002 Ministerioaren Aginduan (2002ko abenduaren 17ko EAO) erreforma garrantzitsu berriak zehaztu ziren, eta errepideko ibilgailuetan erreforma garrantzitsuen izapidetzea arautzen duen uztailaren 8ko 736/1988 Errege Dekretuaren I. eta II eranskinak aldatu ziren. Agindu hori onartzeak erreforma garrantzitsuen gaineko eginkizun berriak ekarri ditu, eta behar den bizkortasuna bermatzeko, ibilgailuen azterketa teknikorako zerbitzua ematen duten entitate emakidadunei izendatzea da egokiena. Horregatik guztiagatik, apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuaren aipatu 2.1 d) artikulua aldatzea bidezkoa da, erreforma garratzitsu berrietara egokitzeko. Bide batez, orain arte administrazioarenak ziren beste eginkizun batzuk entitate emakidadunei izendatuko zaizkie; izan ere, esperientziak erakutsi baitu, egokiagoa dela IATrako emakidadunek burutu ditzaten.

Horretaz aparte, legezko testu beraren 3. artikuluak, hain zuzen ere, taximetroen egiaztapenari buruz hitz egiten duenak dioenaren arabera, aparailu horien hasierako egiaztapena, bigarren fasea, orain arte administrazioak egin izan du zuzenean, eta konponketa edo aldaketaren ondorengoak zein aldizkakoak emakidadunek egiten zituzten. Baina dikotomia horrek arazoak sortzen dituela argi geratu da, hori dela eta, komenigarria da taximetroen egiaztapena entitate emakidadunek egin dezaten, ez bakarrik konponketa edo aldaketaren ondorengoa zein aldizkakoa, baizik eta hasierako egiaztapena, bigarren fasea, ere.

Irailaren 1eko 294/1987 Dekretuak Ibilgailuen Azterketa Teknikorako Aztertokientzako arau orokorrak ezarri, eta aztertoki horien jarduna eta garatu beharreko ekintzak arautu zituen, eta dekretu hori aldatu eta osatu zuen 178/1992 Dekretuaren II. eranskinaren I. eta II. eranskinetan jasotzen den txosten-eredu, eta ibilgailuen azterketa teknikoaren anomalien zerrendari buruz esan behar da, gaur egun ez direla egokiak, izan ere, denbora asko pasatu baita dekretua argitaratu zenetik, eta bidezkoa dela idargabetzea eta arau-maila beheragoko arauan garatzea, aurrerapen teknikorako egokitzapena handiagoa eta azkarragoa izan dadin.

Horrenbestez, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2004ko martxoaren 16an egindako bileran gai hau eztabaidatu ondoren, honako hau

El artículo 2, como pieza central del citado Decreto, recoge las funciones que podrán realizar las entidades concesionarias del servicio de inspección técnica de vehículos, relacionándose en el apartado d) las relativas a las reformas de importancia de vehículos. En dicho apartado se enumeraban las reformas cuyo conocimiento incumbía a los concesionarios, dejando en manos de la Administración la reserva de un buen número de ellas.

La Orden Ministerial CTE/36191/2002, de 5 de diciembre (BOE de 17 de diciembre de 2002) tipifica nuevas reformas de importancia y modifica los Anexos I y II del Real Decreto 736/1988, de 8 de julio, que regula la tramitación de reformas de importancia de vehículos de carretera. La aprobación de esta Orden ha supuesto la inclusión de nuevas funciones, relativas a las reformas de importancia, que, en aras a garantizar la celeridad necesaria, conviene que sean llevadas a cabo por las entidades concesionarias del servicio de inspección técnica de vehículos. Es por ello por lo que procede la modificación del citado artículo 2.1 d) del Decreto 60/2000, de 4 de abril, para adaptarlo a las nuevas reformas de importancia, aprovechando la ocasión para que las entidades concesionarias realicen, además, otras funciones, realizadas hasta ahora por la Administración y que la experiencia ha demostrado que es más conveniente su asunción por los concesionarios de ITV.

Por otra parte, en relación con el artículo 3 del mismo texto legal, a saber, el relativo a la verificación de taxímetros, hasta la fecha las tareas de verificación primitiva, segunda fase, de este tipo de aparatos eran realizadas directamente por la Administración, siendo competencia de los concesionarios las fases de verificación después de reparación o modificación y verificación periódica. Pues bien, se ha comprobado que esta dicotomía provocaba problemas, por lo que resulta conveniente que sean las entidades concesionarias las que se ocupen de la verificación de los taxímetros además de en sus fases de verificación después de reparación o modificación y verificación periódica, en la de verificación primitiva, segunda fase.

Por último, en relación con el modelo de informe y el listado de anomalías de la inspección técnica de vehículos, recogido en los apéndices I y II del Anexo II del Decreto 178/1992, de 30 de junio, por el que se modifica y complementa el Decreto 294/1987, de 1 de septiembre, por el que se establecen las normas generales de instalación de las Estaciones de Inspección Técnica de Vehículos I.T.V.–I.A.T. y se regula el funcionamiento y actividades a desarrollar por dichas estaciones, habida cuenta del tiempo transcurrido desde su publicación, se han quedado desfasados, por lo que se considera oportuno su derogación y su desarrollo en una norma con inferior rango normativo, para su mayor y más rápida adaptación al progreso técnico.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el 16 de marzo de 2004,

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.– Ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzuaren emakidadunei, ibilgailu automobilen segurtasunaren arloan, izenda dakizkiekeen ikuskatze-, izapidetze-, eta kudeatze-eginkizunak zehaztu zituen apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuaren 2. artikuluaren 1.d) idatz-zatia aldatzea. Horrela geratuko da idatzita:

«d) Uztailaren 8ko 736/1988 Errege Dekretuaren 2. artikuluak eta 2002ko abenduaren 5eko Aginduak zerrendatzen eta tipifikatzen dituzten erreforma garrantzitsuen kudeaketa eta izapidetzea, aipatu errege dekretuaren 2. artikuluaren 14. puntuan tipifikatutakoa izan ezik, hau da, txasis edo egitura autosostengagarria erabat, edo haren zati bat aldatzea, aldatzen den zatia txasisaren zenbakia grabatua duenean. Errepideko ibilgailuen erreforma garrantzitsuen izapidetzea arautu, eta Zirkulazio Kodearen 252 artikulua aldatu zuen 736/1988 Errege Dekretuak, eta 2002ko abenduaren 5eko Aginduak erreforma garrantzitsu berriak tipifikatu, eta 736/1988 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinak aldatu zituen.»

Bigarren artikulua.– Legezko testu beraren 2.1.m) idatz-zatia aldatzea eta honela idaztea:

«m) Eskolumeak eta adin txikikoak garraiatzen dituzten autokarren aurretiko azterketak eta aldizkakoak.»

Hirugarren artikulua.– Legezko testu beraren 3. artikulua aldatzea eta honela idaztea:

«3. artikulua.– Taximetroak egiaztatzea.

ITV-IATeko aztertokietan taximetro izena duten kontagailu taximetrikoen hasierako egiaztapena, bigarren fasea, konponketa edo aldaketaren ondorengoa eta aldizkakoaren egiaztapena emakidadun entitateek burutu ahalko dute Sustapen Ministerioaren 1998ko maiatzaren 29ko Aginduaren arabera (1998ko ekainaren 10eko EAO), baina horretarako langileen gaitasun teknikoa egiaztatu beharko dute, baita beharrezko baliabide teknikoak dituztela ere.»

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ibilgailuen azterketa teknikorako zerbitzuaren emakidadunen eginkizunen izendapena dekretu honetan adierazitako eran egin ahalko da, lehenago emakidaren kontratua aldatzen bada, edo, kasuan kasu, baldintza plegua, horretarako indarrean dauden prozedurekin bat eginik.

DISPONGO:

Artículo primero.– Se modifica el apartado 1. d) del artículo 2 del Decreto 60/2000, de 4 de abril, por el que se determinan las funciones de inspección, tramitación y gestión, dentro del ámbito de la seguridad de los vehículos automóviles, que podrán ser asignadas a las entidades concesionarias del servicio de inspección técnica de vehículos, que quedará redactado de la siguiente forma:

«d) Gestión y tramitación de las reformas de importancia relacionadas y tipificadas en el artículo 2 del Real Decreto 736/1988, de 8 de julio, por el que se regula la tramitación de reformas de importancia de vehículos de carretera y modifica el artículo 252 del Código de la Circulación, y en la Orden de 5 de diciembre de 2002, que tipifica nuevas reformas de importancia y modifica los Anexos I y II del Real Decreto 736/1988, excepto la tipificada con el número 14 en el artículo 2 del citado Real Decreto, sustitución total o parcial del bastidor o de la estructura autoportante, cuando la parte sustituida sea la que lleve grabado el número de bastidor.»

Artículo segundo.– Se modifica el apartado 1. m) del artículo 2 del mismo texto legal, que quedará redactado de la siguiente manera:

«m) Inspecciones previas y periódicas de los vehículos destinados al transporte escolar y de menores.»

Artículo tercero.– Se modifica el artículo 3 del mismo texto legal, que quedará redactado de la siguiente manera:

«Artículo 3.– Verificación de taxímetros.

La verificación de los contadores taquicronométricos, denominados taxímetros, en sus fases de verificación primitiva segunda fase, verificación después de reparación o modificación y verificación periódica, de acuerdo con la Orden de 29 de mayo de 1998, del Ministerio de Fomento (B.O.E. de 10 de junio de 1998), podrá ser efectuada por las entidades concesionarias en aquellas estaciones de I.T..V-I.A.T., que acrediten disponer de personal con capacidad técnica suficiente y de los medios técnicos necesarios.»

DISPOSICIÓN ADICIONAL

La asignación de funciones a los concesionarios del servicio de inspección técnica de vehículos, en los términos previstos en el presente Decreto, se podrá realizar siempre que, con carácter previo, se proceda a la modificación del contrato de concesión y, en su caso, del pliego de condiciones de acuerdo con los procedimientos vigentes para ello.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Irailaren 1eko 294/1987 Dekretua aldatu eta osatzen duen ekainaren 30eko 178/1992 Dekretuaren II. eranskinaren I. eta II. eranskinak indargabetuak gelditzen dira. Ibilgailuen azterketa teknikorako aztertokientzako arau orokorrak ezarri eta aztertoki horien jarduna eta garatu beharreko ekintzak arautu zituen 294/1987 Dekretuak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Industriaren segurtasunaren arloan eskumena duen zuzendaritzari ahalmena ematen zaio ibilgailuen azterketa teknikoan aplikatu behar den txosten-eredua eta anomalien zerrenda onar dezan.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko martxoaren 16an

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua.
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Se derogan los apéndices I y II del Anexo II del Decreto 178/1992, de 30 de junio, por el que se modifica y complementa el Decreto 294/1987, de 1 de septiembre, por el que se establecen las normas generales de instalación de las Estaciones de Inspección Técnica de Vehículos I.T.V.–l.A.T. y se regula el funcionamiento y actividades a desarrollar por dichas Estaciones.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta a la Dirección competente en materia de seguridad industrial para aprobar el modelo de informe y el listado de anomalías aplicable en la Inspección Técnica de Vehículos.

Segunda.– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de marzo de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Zk-1831

62/2004 DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren Kudeaketa Batzordea arautzekoa.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoa (GLSF) Finantzen Euskal Kontseiluak 1989ko urriaren 10ean hartutako erabakiz sortu zen; ordutik hona, fondo hori aurrekontu tresna izan da Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek nazioarteko konpromiso bat bete dezaten, behartsuenei laguntzeko konpromisoa, hain zuzen.

Sortu eta gero ere, GLSFk bilakaera izan du, jakina, etengabeko hazkundeak markatua, garapen-lankidetza politika publikoetan eta euskal gizartean, oro har, sendotuz zihoan heinean. Horrekin batera, funts horretan parte hartzen duten erakundeen dinamikak berak ere lankidetzarako esparru berriak ekarri ditu.

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

Nº-1831

DECRETO 62/2004, de 30 de marzo, por el que se regula la Comisión Gestora del FOCAD.

El Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo (FOCAD) fue creado por Acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas de fecha 10 de octubre de 1989, constituyendo a partir de entonces el instrumento presupuestario destinado por parte del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales a atender el compromiso de solidaridad internacional con los países empobrecidos.

Con posterioridad a este momento de creación, el FOCAD ha tenido una evolución marcada por el constante crecimiento, en la medida también de que la cooperación al desarrollo se iba consolidando en las políticas públicas y en la sociedad vasca en general. Junto a ello, la propia dinámica de las instituciones participantes en él ha generado nuevos espacios propios de cooperación.